

Ekipamenduen %14k bakarrik ageri du  $II \leq 1$  (Amurrio-Iparralde salbu, guztiak Bilbon edo haren ingurunean kokatzen dira).

Geltokien %53 egoera kritikoan dago,  $II > 2$  edo 3ko balioekin.

Amurrio, Laudio, Arrigorriaga eta Ugao bezalako geltokietan, hain zuzen ere eskari handienekoen artean daudenak, irisgarritasun gabeziak ageri dira, funtzionaltasunaren aldetik kritikoak.

Ekipamenduen %18k bakarrik dauka konponduta oinezkoen irisgarritasunaren gaia kaletik nasaraino.

Ekipamenduen %59k behartu egiten du trenbideen gainazaletik ibiltzera nasen arteko joan-etorria egiteko.

Bilboko eremutik harago, ekipamenduek gabezia garrantzitsuak ageri dituzte komunikazioaren irisgarritasunean.

Bizkaia A3	IRISGARRITASUN FISIKOA			KOMUNIKAZIOEN IRISGARRITASUNA		
	Kanpoko	Ekipamendua	Ibilgailua	Kanpoko	Ekipamendua	Ibilgailua
Irisgarria						
Funtzionala						
Iristezina						